

Bilboko Kotsulegoa (eta 3)

Deia, 1983-08-22.

Bilbotik Portugalete bitartean egindako kaiak, kanaleko garbiketa, buiak, bideak, denak Kotsulegoak ordainduak izan ziren, honetarako 1737an emandako ordenamenduen arabera; baina, 1781garrengo erregemanuz Marina espainolaren mende jarri nahi izan zituzten, Flotako Ordenamenduek agintzen zuten legez. Laster mugitu ziren Kotsulegoako gizonak Foruaren babes bila, eta honek aitor arazten dio Madrileri aipatutako Ordenamendu horiek "hemendik kanpoko beste Portuetako balio dutela, eta ez Bizkaiarako". Halaxe jarrai ahal izan zituzten portuko lanak ordurarte bezala.

Baina erne egon beharra zegoen beti.

Kotsulegoak eskatu bezala, XVIIIgarren mendean ere *zaldi-postak eta postalgoak* ordurartekoan jarraitu zuten bezala, hobasun batzu erantsiaz: Lehengo *Mala de Flandes*, *Correo del Norte* eta Bilbo-Donostia artekoa egiten zuen balija-eramailea, hiru zerbitzu horiek, berdin jarraitu zuten mendearen amaiera arte; baina Kotsulegoak eska bezala, Arrasaten elkartzen hasi ziren Donostiako eta Bilboko, gero Penintsulako gainontzekoetara jarrai zezan. *Lau zaldi-posta* jarri ziren: Ludio (Llodio), Orduña, la Peña eta laugarrena distantzia berdiner.

Amerikarekin zuzenki merkataritzan hasteko eskabide bi egin zituen Kotsulegoak: *1736an*, Buenos Aires, Tucuman eta Paraguay-ekin, eta *1764ean*, Luisianarekin. Madriletik ezezkoa etorri zen. Hala ere, merkataritzak zuzenki egiteko eskubide berezirik gabe ere, zeharka, Santandereko portua bide zela egin ahal izan zituzten espedizioak XVIIIgarrenaren hasieratik aurrera Habana-ra eta beste puntuetara. Baina mende honetan hasi zen Kotsulegoa zenbait auzi izaten Madrilekin eta gertuago zeuden Bilboko Udalarekin eta Bizkaiako agintariekin ere. Eta gure historian askotan bezala, kanpotik etorri behar izan zuen erabakiak: 1764garrengo Errege-zedula.

XIXgarrenean Ingalaterrarekin eta Napoleonekin gerrak galerazi zituzten portuko lanak; frantsesak joan zirenean piztu ziren zertxobait, baina Karlistadekin sortu ziren kalte berriak. Gernikatik ere etorri ziren Bilboren aurkako erabakiak. Azkenengo Ordenamenduak, 1737an Bizkaiko Batzar Nagusiak emandakoak izen ziren: 29 kapitulutuan eratutako 723a artikulurekin iraun zuen Kotsulegoaren ihardueta Espainiako *Codigo de Comercio* delakoak *1829an* (maiatzak 30) *akabatu* zuen arte.

Hala ere Ameriketako herrietan jarraitu zuen bizirik: Costa Rica, Peru eta Colombia 1853 arte; El Salvador-en 1855 arte; Argentinan, 1859 arte; Venezuelan, 1862 arte; Uruguayan, 1867 arte; Nicaraguan, 1869 arte; Paraguayan, 1870 arte; Guatemalan, 1877 arte; Hondurasen, 1881 arte; Ecuadoren, 1882 arte eta azkenik, Mexicon, 1884 arte.¹

¹ "El Consulado de Bilbao dicta su primera Ordenanza conocida", Jesús de Galíndez. Revista "Euzkadi", centro vasco de Caracas, noviembre 1947.